



Euskadiko haurren %16 pobrezia egoeran bizi dira

Euskadiko haurren %16 (55.000 haur inguru) pobrezia egoeran edo ongizaterik gabe bizi dira. Save the Children erakundeak datu horiek gogorarazi nahi izan ditu Haurren Eskubideen Munduko Egunaren harira. Igandean izango da hau, azaroak 20, haurren eskubideak gogoratzeko. Errealitate horiek ikustarazteko asmoz, Save the Children erakundeak hamar argazkiko erakusketa bat jarri du ikusgai Bilboko Metroan, azaroaren 2tik aurrera.

Erakunde horrek adierazi du Euskadin bost haurretatik bat (hirutik bat Espainia osoan) bizi dela pobrezia edo gizarte-bazterkeria arriskuan. Horrek esan nahi du familiek ez dutela gastu guztiak estaltzeko baliabide nahikorik.

"Pobrezia ez da naturala, eta ekidin daiteke" adierazi du Eva Silvanek, Save the Children erakundeak Euskadiko arduradunak. Familien diru-sarrerek nutrizioa eta osasuna baldintzatzen dituzte, beste aspektu batzuen artean. Espainian 266.055 haur egon daitezke malnutrizio egoeran, beren familiek ezin dutelako astean hiru aldiz haragi, oilasko, arrain edo baliokideak diren barazki-elikagaiak dituzten otorduak prestatzeko jatekoa erosi.

Panpinak, eskulanak eta autoak, Gabonetako desiratuenak

Espainiako jostailu-egileen elkarteak (AEFJ) aurreikusi duenez, panpinak, eskulanak egiteko jolasak, mahai-jokoak eta autoak izango dira Gabonetan salduenak. Sasoi honetan egiten dira urte osoko salmenten % 70.

Gainera, teknologiak adituak erakartzen jarraituko du, batez ere, jolas tradizioaletan ere sartu dutelako.

Amazonen esanetan, AEBn interneten egiten diren jolas bilaketen %30 biltzen dituen enpresaren esanetan, aurten Espainian arrakasta izango duten jolasak telebistako eta zinemako serie batzuekin lotutakoak izango dira, eta baita robot maskotak ere.

Merkataritza elektronikoen erraldoiaren datuen arabera, aurten gehien eskatuko diren jolasak Soy Lunaren patinak, Patrulla Caninaren aginte zentroa, WowWeeb robot txakurra, Star Warsen BB-8 panpina, Yokairen erlojua, Star Warsen transbordadorearen Legoa, Hatchimalak (izaki interaktibo bat jaiotzeko zaindu behar diren arrautzak) eta Ladybugen irudi hegalaria.



Pobrezia energetikoaren aurkako laguntzak

Eusko Jurlaritza prestatzen ari den Emergentsia Sozialetarako Laguntzen legeak pobrezia energetikoari buruzko atal berezi bat izango du, eta hor zehaztuko ditu arazo horri aurre egiteko laguntzak.

Angel Toña Enplegu eta Gizarte Politiketarako sailburuak Bilbon egin du iragarpena, Reusen gertatutakoaz galdetu diotenean. Adineko emakume bat hil zen Reusen, kandela batek eragindako sute baten ondorioz; argindarra kendu zioten, ordaintzeko modurik ez zuelako.

Tumoreek eragindako heriotzak %16,8 igo dira azken hamarkadan

Euskal Estatistika Erakundeak atzo argitaratutako datuen arabera, 21.509 pertsona hil ziren iaz Euskadin, 2014an baino %6,7 gehiago.

Heriotzen kausari erreparatuta, tumoreek heriotzen %29,7 (6.379 heriotza) eragin zituzten iaz; zirkulazio-aparatuko gaixotasunek, %26,9 (5.788 heriotza); eta arnas aparatuko gaixotasunek, %9,9 (2.119 heriotza).

2015ean 21.509 pertsona hil zirela aintzat hartuta, hazkundera negatiboa izan da; izan ere, heriotzak baino 2.658 jaiotza gutxiago izan dira. Lurrelde lurrelde, Bizkaiak eta Gipuzkoak saldo negatiboak dituzte, 2.479 eta 571 biztanle gutxiago; Araban, 392 gehiago.

2015ean hildakoen batez besteko adina 79,9 urtekoa zen, 2005ean; 76,8koa zen eta, beraz, 3,1 urte luzatu da azken hamarkadan. Gizonezkoak batez beste 76,6 urterekin hil ziren iaz eta emakumeak, oster, 83,2 urterekin.

WhatsApp bideodeiak egiteko aukera eskaini du, azkenik



WhatsApp munduan zehar gehien erabiltzen den mezuak bidaltzeko aplikazioak bideodeiak egiteko aukera emango du modu mailakatuan datozen egunotan. Orain dela hilabete batzuk ezagutzen bazen ere, ikusmin handia eragin duen zerbitzua da.

Enpresaren blogean argitaratu dutenez, “datozen egunotan, WhatsAppen 1.000 milioi erabiltzailek baino gehiagok bideodeiak egin ahal izango dituzte, Android, iPhone eta Windows Phone sistema eragilea duten gailuen artean”.

Robotak eta drone-lasterketak Bilbon

Gaurtik igandera arte, Bilbo *Maker Faire* sormen-teknologiaren jaialdia hartzen ari da. Munduko asmatzaile eta sortzaileen azokarik handiena da, eta 150 ekitaldi baino gehiago prestatu dituzte Zorrotzaurreko Artiach gailuten fabrika zaharrean egiteko.

Sarrera doakoa izango da, eta adin guztietako pertsonentzako ekitaldiak egongo dira asteburu osoan: erakusketak, tailerrak, mundu osoko teknologia onenei buruzko hitzaldiak... Erakusketen guneak 3D inprimagailu erraldoiak eta *drone*-lasterketak hartuko ditu. Hezkuntzarekin lotutako proiektuak, oinarri teknologikoa duten *startup*-ak, moda eta teknologia lehiaketak, birziklapen tailerrak, *fairphone* telefonoak, *biohacking* proiektuak ere izango dira gune horretan.

Molinoneko zati bat itxita, Williamsen kontrako oihu arrazistengatik

Ligako lehen jardunaldian Sportingen eta Athleticen artean Molinoneko futbol-zelaian jokaturako partidan Iñaki Williamsen kontra botatuko oihu arrazistak zigortu ditu Lehiaketa Batzordeak. Ondorioz, harmailetako zati bat itxiko dute.



Sportingeneko zuzendaritzak erabakiarekin bat ez datorrela esan eta gehiegizkoa dela argi utzi nahi izan du.

EGURALDIA: ABISU HORIAN GAUDE



Eusko Jaurlaritzako Larrialdiei Aurre Egiteko eta Meteorologiako Zuzendaritzak abisu horia ezarri du larunbat eguerdira arte; izan ere, 4 metro baino gehiagoko olatuak egon daitezke.

Eguraldiari dagokionean, **larunbatean**, goizean giro nahiko lasaia, aldiz, erabat nahasia arratsaldetik aurrera. Goizaldean ostarteak irekiko dira, nahiz eta goihodei dezente ikusi. Arratsaldean, ordea, hodeitza loditu eta trinkotu egingo da, haizea zakartu eta gauean tanta batzuk botako ditu. **Igandean**, berriz, giro nahasiarekin jarraituko dugu eta hego-mendebaldeko haizeak gogor astinduko ditu bazterrak egun osoan, nahiz eta bolada gogorrenak goizaldean espero.

